

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honek enpresaren aktiboen definizioan datza eta enpresaren negozio ereduak ondo funtzionatzea du helburu. Horrez gain, funtsezko baliabideak hainbat mailatan sailkatzen dira eta hauek dira guk beharko ditugunak:



- Baliabide fisikoei dagokienez, gure aplikazioa sortzeko bulegoak, mugikorrak, ordenagailuak eta sistema informatikoak (kableak, zerbitzariak, biltegiatzea, etab) beharko genituzke.
- Baliabide intelektualei erreparatuz, datu baseak beharko genituzke. Izan ere, aplikazioan Euskal Herriko, adin ezberdineko eta institutu ezberdineko pertsonak bilduko dira. Hori dela eta, komeni litzaiguke pertsona horiek aplikazioan erregistratzean idatzitako informazioa datu base batean gordetzea. Horrek, datuak gordetzeko eta behar direnean modu erraz eta egituratuan eskuratzeko aukera emango digu.
- Giza baliabideekin jarraituz, kide bakoitzaren trebetasunak erabiliko ditugu.
 - Azken urteetan Aimarrek aplikazioak sortu eta diseinatzeko zenbait ikastaro egin ditu eta horrek, ezagutza eman dio.
 - Anek Euskal Herrian zehar dituen kontaktu ugari ditu. Izan ere, Ane influencerra da eta milaka jarraitzaile ditu.
 - Luciaren lidergoak eta negoziazioan dituen esperientzia eta abileziei esker, aplikazioa sortzeko antolaketaz eta bideraketaz arduratuko da.
 - Albak ekonomia eta finantza arloan egindako ikasketek ezagutza eman diote, hori dela eta, gai da enpresak izango dituen kostu eta sarreren aurrekontua egiteko eta aplikazioan inbertitutako dirua kudeatzeko.
 - Nik sare sozial ezberdinetan (Instagram, Snapchat...) produktu edo zerbitzuak iragartzeko ditudan ezagutzak. Ezagutza horien bidez, aplikazioa Aneren Instagrameko kontuan igarriko dugu.
- Finantza baliabideez jabetuz, aplikazioa sortzeko aurrezkiez baliatuko gara.